



*Prensa oharra*

## **EROSKI-K ETA ARASKI EMAKUMEEN SASKIBALOI TALDEAK LANKIDETZA HITZARMEN BAT EGIN DUTE DATOZEN DENBORALDIETARAKO**

### **• Hitzarmenarekin, ohitura osasungarriak sustatuko dituzte elikaduraren eta kirolaren bitartez**

**Gasteiz, 2021eko irailaren 16a.-** [EROSKI](#) eta [ARASKI Emakumeen Saskibaloia Taldeak](#) lankidetzaz hitzarmen bat sinatu dute ohitura osasungarriak sustatzeko elikaduraren eta kirolaren bitartez.

Datozen bi denboraldietan egongo da indarrean hitzarmena. ARASKIko presidentea Iratxe Rodriguezek eta EROSKIko Harreman Instituzionaletarako arduradun Jose Antonio Yelak sinatu dute, Gasteizko EROSKI Boulevard hipermerkatuan.

*"Asko pozten gaitu ARASKI komunitatearen parte izateak, Gasteizen hain maitatua den kluba. ARASKIren balioak eta EROSKIrenak bat datoz eta elkarrekin indar handiagoa dute. Gure kooperatibaren ekimen ugari egiten ditugu ohitura osasungarriak sustatzeko, eta kirola da horren erakusgarri",* esan du EROSKIko Harreman Instituzionaletarako zuzendariak, Josean Yelak.

*"Eskerrak ematen dizkiogu EROSKIri, babesa emateagatik eta saskibaloiak gure kirolarietan txertatzen dituen balioak partekatzeagatik, oinarrizkoa gure gazteen garapenerako eta kirol ibilbiderako",* esan du ARASKIko presidentek, Iratxe Rodriguezek.

### **EROSKIri buruz**

Kooperatiba izaerako Espainiako lehen banaketa taldea da EROSKI, eta erreferentziazko operadorea Galizian, Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan, Katalunian eta Balearretan. 1.624 saltokiko sare komertziala du. Saltoki motari dagokionez, baditu supermerkatuak, hipermerkatuak eta cash & carry-ak eta, horretaz gain, gasolindegia, bidaia bulegoak eta kirol ekipamendurako dendak ere bai eta bere *online* supermerkatua. Era berean, sei milioi Bezero Bazkide baino gehiago ditu, eta 33.000 bazkide kooperatibista, langile eta frankizia-hartzaile baino gehiago.

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
KRISTIAN PRIETO

Tel: 944 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA**

##### **Consejeros del Norte**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

Online prentsa aretoa



## **ARASKIri buruz**

Emakumeen elkarte bat da saskibaloiazen inguruan emakumeen prestakuntza eta sustapena lantzen dituen; haren xede eta helburuek kirol esparrua gaintzen dute; izan ere, emakumeak hezi nahi ditu ez bakarrik alderdi fisikotik eta kirolek, baizik eta baita arlo pertsonaletik ere, kirol hezkuntza osotasun ikuspegiarekin landuta; osotasun horretan sartzen dira emakumeen ahalduntzea, lidergoa eta erabakiak hartzea, erreferenteak sortzea eta emakumeen eta gizonen berdintasuna lantzea kirolean.

Bere kirolariei saiatzen da transmititzen emakumeak protagonista dituen proiektu baten parte direla, eta haien kirol jarduera, egingo duten kirol ibilbidetik harago, gizarteari begira baloratua eta proiektatua dagoela.

---

### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
KRISTIAN PRIETO

Tel: 944 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA**

#### **Consejeros del Norte**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

Online prentsa aretoa